

Irakaskuntza pribatuko ikastetxeen gastua %19,7 igo zen 2007-2009 aldian


BPGren gainean, zentro pribatuen guztizko gastua %1,66 izan zen

Euskal AEko irakaskuntza pribatuko zentroen guztizko gastua -448 zentro, 180.000 ikasle inguru-1.104 milioi izan zen 2009an, BPGren terminoetan %1,66, 2007an baino %19,7 gehiago, Eustaten datuen arabera. Azken hamabi urteetan batez besteko hazkunde metatua %5,4 izan da.

2009ko ekitaldian gastu arrunta guztizkoaren %92,9 izan zen eta batez ere (%71,2) langileria-gastuetan joan zen. 2007ren aldean, gastu arrunta %16,9 hazi zen. Inbertsio-gastua, 77,8 milioi, (guztizkoaren %8,9) %76 hazi zen 2007ren aldean. Zerbitzu osagarrien (jantokia eta garraioa, batez ere) gastuak %16 hazi ziren, eta jarduera osagarrienak %86; 2009ko guztizko gastuaren %7,6 eta %2 izan ziren.

Zentro-motari begiratzuz gero, unibertsitate-aurreko mailetak zentroetan kontzentratu zen guztizko gastuaren gehiena, %85; goi-mailako zentroetan %13 izan zen eta %2 arte-irakaskuntzan.

Euskal AEko zentro pribatuetako irakaskuntza gastuaren bilakaera, ikasleko (€)



Iturria: Eustat

ADIERAZLEAK

Irakaskuntza gastu unitarioek, ikasleko eta taldeko, antzera jokatu zuten 2007-2009 aldian. Ikasleko irakaskuntza-gastua %13,4 hazi zen eta %12,9 eskola-unitatekoa (taldekoa); alegia, taldeko ikasle-kopuruak bere horretan iraun du 2009an.

Eskola-unitate edo taldeko irakaskuntza-gastuak 2009an 74.947 eta 89.916 euro izan ziren Haur-hezkuntzan eta Lehen Mailan. Irakaskuntza Ertaineko gastuak: 105.377 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH); 103.297 Lan Hezkuntzan (LH) eta 130.913 batxilergoan. Helduen Irakaskuntzan (HI) unitateko gastua 54.330 euro izan zen. Ratorik baxuenak oraindik ere titulartasun erlijiosoaren zentroek dauzkate.

Ikasleko irakaskuntza-gastuak: Haur hezkuntzan 4.036 euro; Lehen Hezkuntzan 4.380; 5.443 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; 5.757 Batxilergoan; 6.162 Lan Hezkuntzan. Unibertsitatean 6.442 euro eta Arte irakaskuntzetan 1.651.

FINANTZAZIOA

Euskal AEko Ikastetxe pribatuen **guztizko sarrerak** 1.021 milioi eurokoak izan ziren: sarrera arruntak %98 eta kapital-sarrerak %2. Sarrera arruntan iturri nagusia diru-laguntza publikoak dira, %66. Ondoren irakaskuntza kuotak (%14) eta zerbitzu osagarrienak (%8,6).

Kuotengatiko sarrerez, irakaskuntzakoak horien %53,2 izan ziren; garraioak %8,4, jantokikoak %22 eta jarduera osagarrietakoak familien ordainketen %13,6. Gainerakoa beste zerbitzuengatiko kuotak izan ziren.

Ikasleko batez besteko kuotak, Euskal AEko zentro pribatuetan 709 euro izan ziren; zerbitzu osagarrietakoak (jantokia eta garraioa batez ere) 441; jarduera osagarrietakoak 181.

Zentro pribatuek egindako **inbertsioak** 77,8 milioi izan ziren; horietatik 17 kapital diru-laguntzen bidez finantzatu ziren, edo kapital-ondasunen salmentengatiko diru-sarreraren bidez.

1. taula.- Aldagai nagusien bilakaeraren laburpena

	1997	1999	2001	2003	2005	2007	2009	Δ 2009/2007	(1) Δ 2009/1997
Guztizko gastua (mila €)	559.807	596.793	680.274	736.529	834.401	922.159	1.104.185	19,7	5,4
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	2.131	2.492	2.911	3.300	3.727	4.104	4.654	13,4	6,2
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	54.634	59.714	65.635	69.744	74.509	82.563	93.253	12,9	4,2

(1) Urteko tasa metatua

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^a Carmen San Vicente

Tel.: +34-945-01 75 45 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistikari buruzko prentsa-ohar

Euskal AEko Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistikari buruzko datu bankua